# ALLERRUKO MENDIZALEAK OTE???

Iragan den ikastaroaren balorazio bat egiteko garaiean, oso pozik agertzen gara, HAMASEI izan bait dira, MENDIKO LEHIAKETAN, finalista izatera iritsi direnak. Hauek dira, beren domina jaso zuten haur eta gaztetxoak:

MAIALEN ESNAOLA MAUDES

ANARTZ ZINKUNEGI ARRILLAGA

ION ALFARO CAMPO

JAVIER MARTIN MATEOS

IÑAKI ARREGI URKIZU

IRATI ARANBURU SALABERRIA

BEÑAT SEIN ETXABE

IBAN LEDESMA NICOLAS

IÑAKI COUCEIRO ALLER

EDURNE ARREGI URKIZU

AINHOA ORTIZ ZINKUNEGI

MIKEL VILLANUEVA SOTO

XABIER ARREGI URKIZU

LARRAITZ ARANBURU SALABERRIA

ELIXABET NUFRIO FERNANDEZ

AITOR VIDAL URRESTARAZU





Ikastaroaren zehar, zenbait Ibilaldi egin dituzte: ERNIO (Errezil) ERLO (Azpeitian), LARTE (Gaztelu), AITZ LEHOR (Seguran), BIANDITZ (Oiartzun), AITZKORRI (Zegaman), LARRUN (Bera) eta ALLERRU (Lezo).

Guztira, partehartzaileak 65 haur eta gaztetxo izan dira mendiaren gorritasuna ezagutu ahal izan dutenak eguraldi txarra dela medio. Bainan ziur gaude nahiz bustialdi latzak jasan, ez dutela aurtengo neguan katarroari esker, egunik ohean alferrik galdu. ZORIONAK beraz aurtengo finalistei eta datorren Irailerako prest egon, izenak hartzera eskoletara joango gara eta LEHIAKETAN parte hartu ahal izateko. Aurten gainera, ALLERRUK beste LEHIAKETA BAT antolatuko du eta sari berriak izango dira ikastaroaren bukaeran. ERNE EGON eta ANIMATU!!!!

Santakrutzetan eta hasiera emateko ALLERRUKO GAILURREAN, aspaldi falta den buzoiaren ezarketa egingo dugu eta denok haur eta heldu gonbidatuak geratzen zarete bertan egingo den erromerri eta hamarretakora.

Esan bestalde, helduak ere haurrak haina gozatzen dugula gure menditan, beraz pentsa gure gonbidapen hau zuentzat ere luzatzen dugula. Ziur gaude behin proba eginez gero errepikatuko duzula. HANKAK MUGITU, IPURDIKOREN BAT EDO BESTE HARTU ETA EUSKADIKO LEKU ZORAGARRIENAK ezagutu nahi baditzu, ZATOZ GUREKIN.

ESKERRAK NOLA EZ, HAU GUZTIA AURRERA ATERATZEKO ZUEN LAGUNTZA ESKEINTZEN DUZUEN GUZTIOI.

**ALLERRU MENDI TALDEA**